

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

ordoki	«...urkiek beren eskuekin eraikitzen duten etorbide motz eta ordoki baten atarian.
urki	«... urkiek beren eskuekin eraikitzen duten etorbide motz eta ordoki baten atarian.»
txosperriko	«Ura, hiriko Marta. Behin ere ez berdina. Txosperrikoa batzuetan eta orduan ene eztarrian freskura-hondarra lagatzen zuen.»
zantzu	«Udaberri zenean hantxe egoten nintzen ni zantzuan eta Mikaela agertzen zenean korrika aldegiten genuen...»
uhar	«Txosperrikoa batzuetan eta orduan ene eztarrian freskura-hondarra lagatzen zuen. Uharra besteetan eta orduan berarekin eramaten ninduen.»
erasan	«Tximista batek zuhaitz bat erdibitzen duen erara halaxe erasan zion.»
bigantxa	«...txikitzen hasi ziren, behirik eta idirik handienak ere bigantxa baten tamaina hartuz...»
garotan	«Txikiena, Antonio, garotan ari zen batetan joan zen inork ez daki nora...»
zakar	«Txikia zen, azal zakarrekoa ...»
epuru	«Sutaska piztuta eta sutan epurua , gar urdinetan erreaz.»
sutaska	« Sutaska piztuta eta sutan epurua, gar urdinetan erreaz.»
barrunbe	«Sua izeki zen ama Margaritaren baitan eta barrunbea erre zion azkenean, erraustu arte.»
zilipurdi	«Semeetako besteak zakurra hartu zuen eta aro batetik pasarazi eta zilipurdiak egitera behartzen zuen.»
armiarma	«...pintura markak zabaltzen dira zabarki paretetan zehar, armiarma handien legez, denbora iraganaren seinale.»
zabarki	«...pintura markak zabaltzen dira zabarki paretetan zehar, armiarma handien legez...»
pendiz	« Pendize bat aukeratzen nuen eta hantxe ibiltzen nintzen, ohol baten gainean irristatzen.»
alboroke	«Partidaren bezperan alboroka moduko bat egin zuten ezkien plaza erdian, despedida moduan edaria kanpotarren kontura.»
ozpel	«...pareta ozpel batetik nekez igotzen den ezker aihenaren moduan.»
ezker aihen	«...pareta ospel batetik nekez igotzen den ezker aihenaren moduan.»
sarraskitu	«Paolok bere ardiak sarraskituta ikusi zituenean...»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

marruskatu	«...ordurarte aho-sapaian itsatsirik egon ziren hitzak elkarri oparitutuz, bakoitza marruskatuz , zuen esanahia gastatu arte.»
ziplo	«Orduan ziplo erori zen.»
albaindu	«Orduan oroimenak albaintzen zituen buruaren ardatzean.»
pentsu	«Orain, pentsutan hasiz gero, elurra ahantziaren parekoa dela iruditzen zait.»
zemaika	«Ondoren sasoiaren zeuden mutil guztiak eramatearekin ibili ziren zemaika .»
hasperen	«...oinez bentaraino eta han hasperen hartu ondoren estazioraino ...»
aspreak	«...Norteko haize hotz eta aspreak eraso egiten zidalarik...»
nini	«Nire ninietaraino sartu zen berak gaubelan igarotakoaren orduen arrastoa.»
bisaia	«...nire aurpegiaren azpian haren bisaia somatzen nuen...»
karia	«...nire antza zuela eta horren kariaz hasi nintzen egunero neure burua gelako ispilu lainotsu eta obalean begiratzen...»
zendu	«Ni mundura jaio nintzen egun berean zendu zen ama Margarita.»
astaina	«Ni astaina banintz bezala.»
nano	«...mukizuak adinakoak ziren nano haiek hainbeste argudio eta berriketa.»
dzangada	«Mistela erronarekin edaten zuen dzangada batez, desagertu aurretik.»
marrumaka	« Marrumaka ari ziren idiak amonak utzi gintuenean.»
belaze	«Lorezko koroiez horniturik zegoenean eta belazeetan eguzkiak dirdira egiten zuenean...»
portunatu	«Lorategian portunatzen ziren katu eta ketemeak zelatatzen zituzten ...»
min	«Laurak hizki berdinez hasten dira gainera, naturalezaren aberastasuna erakutsiz, minenak ditudan loreak bezala.»
lubera	«Lau emakume hauek osatzen dute nire geografia intimoa, ni hazi naizen lubera .»
artizar ura	«Larrua ikara zen eta artizar urak bustitzen gintuen zeharo.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

samats	«Kurtzetarrek su eman zieten zelaiei, sikiera samatsa izan zedin.»
tupustean	«Kurtzetar batzuek ere probatu zuten eta tupustean ume bihurtu ziren...»
mauka-mauka	«...kausitu ez zuelako beldurra hasi zitzaion mauka-mauka jaten.»
afanean	«...karretera ondoko baserrietan traktoreak ari ziren afanean .»
domeka	«...jotzen ditu ezkilak goiznabarreko mezatarako, arrats beheran errosariorako, sapatoan bezperetarako eta domekan eguerdiko nagusirako.»
idor	«...jaten zutena belarra zela, mendietako zaingorri idor hori...»
zaingorri	«...jaten zutena belarra zela, mendietako zaingorri idor hori...»
tutu	«...jakin zitekeen odola izoztuta geratu zitzaiola, zainetako tutuetan .»
pentze	«Jakin banekien Otamunoko pentzeetako sarobean ardiekin egon ezean inguru haietan ibiliko zela (...).»
saroe	«Jakin banekien Otamunoko pentzeetako sarobean ardiekin egon ezean inguru haietan ibiliko zela...»
oldarka	«Izardia zerion oldarka .»
malo	«Izara handi baten legez estali zuten landa osoa beren hostoen maloek , eta zerbait zegoen aidean euli eta liztor eta erleak erakarri zituen.»
geroenean	«Iragarki bat jarri zuten geroenean paretan itsatsita ...»
lander	«...horrela gabiltza zaldia eta biok, judutar landerraren moduan.»
piper egin	«Horregatik egiten genuen piper elkarrekin.»
galant	«Horregatik beharbada biltzen dira neguko gau gordinetan auzoko katu eta kateme makakorro galantekin .»
makakorro	«Horregatik beharbada biltzen dira neguko gau gordinetan auzoko katu eta kateme, makakorro galantekin.»
abarrots	«...hor dabilta nire gorputz-ariman bueltaka, beren abarrotsez ernegatzen.»
hats hartu	«...hitzak metatu egin ziren aho sapaian, hats hartzeko ere traba eginaz.»
arakatu	«Herri osoa arakatu zuten, zoko guztiak miatu baina ez zuten kausitu.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

nabar«...haren begietatik gogoratzen dudana da **nabarrak** zirela.»**piko**«Han aldapa bat hasten da, **pikoa** zatirik handienetan eta errebuelta itxiekin...»**trumilka**«Hala ere min handiagoa ematen zidan errektotara atera eta nire atzetik **trumilka** iristen zen hitz batek...»**barrundatu**«Hala ere **barrundatzen** zuen Mandiolako Jesusak kezka bat.»**zuku**«...gorputz-atal guztiak azukre eta kanelaz eta karamelo errearen **zukua** zigurtzen zizkiola.»**gogoanean**«**Gogoanean** daukat gertatutakoa.»**txankamalo**«Gizona ez zegoen eserita, **txankamalo** bat baizik, gizonaren jaka eta prakekin.»**herabeti**«Gizon ixil, **herabeti**, uzkur, kopetilun, zipotza.»**kopetilun**«Gizon ixil, herabeti, uzkur, **kopetilun**, zipotza.»**uzkur**«Gizon ixil, herabeti, **uzkur**, kopetilun, zipotza.»**zipotz**«Gizon ixil, herabeti, uzkur, kopetilun, **zipotza**.»**inular**«(Gerrak) **Inular** gorrien antzekoak ziren, ikusgarriak, lekutuak, baina pai-ratzen ziren bertan baleude bezala.»**zerren**«...gehienak marinelen kontuei buruzkoak, larruz enkoadernatuta eta batzuk **zerrenak** zulatuta.»**parol**«...gaztea zela beltzez jantzita egoteko eta horrelako **parolekin** enbaucatu nahian.»**izpi**«...gari aleak, alpalpa **izpiak**.»**hirusta**«...Fortuna lagun duzula jakinarazten duten **hirustaren** hostoak ...»**motots**«...ezpain finekin eta ile beltz harekin, **mototsean** ixten zena buruan.»**ezari-ezarian**«**Ezari-ezarian** prozesio bat balitz bezala...»**itsumena**«Ezabatu zen zeruertzean haren ezpain gozoen **itsumena**.»**mengaizo**«Ez zuen hitzik egiten nirekin. **Mengaizoz**.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

laborri	«...ez zuen aitortu nahi beldur laborriak harrapatua zuela.»
.....	
amatatu	«Ez zen amatatzen galderaren garra...»
.....	
pardeltxo	«...ez zegoen Kurtzetako inor plazan, Mikaela joan zenean eskuan pardeltxo batekin...»
.....	
usna	«Ez daukak txakurkumeen usnarik .»
.....	
mendre	«...euriak gogor egiten zuenean, bere tantak orratz mendre baina indartsuak zirenean...»
.....	
mandio	«...etxe osoa erre zion, mandiotik hasita aroztegiraino beltz-beltza utziaz.»
.....	
zurtuta	«Eta zentzudunak ziren eta tabernara joaten zirenean bertako lagunak zurtuta uzten zituzten, esaten zutenarekin.»
.....	
unatu	«...eta unatuta nagoenean honaxe etorriko naiz deskantsatzera".»
.....	
eskerga	«...eta gero ideia horrek bueltak eman zituen bere buruan azkenean bola eskerga bihurtu arte.»
.....	
metatu	«...eta elkarri ez esandako hitzak metatu egin ziren aho sabaian...»
.....	
eskuarki	« Eskuarki ez da horren zentzua esplikazioekin xahutzen.»
.....	
tenkatu	«Eskopeta kargatu eta oilarra tenkatu zuen, disparatzeko prest utziaz.»
.....	
piura	«...esan zion tabernariak halako piuran ikusi zuenean.»
.....	
ahardi	«Esan zezakeen (...) ahardia beteta zegoela...»
.....	
min izan	«Erreka neska mutilen min zen .»
.....	
ezki	«Elizak bakarrik irauten du (...) zutik ezkien plaza erdian...»
.....	
kantzela	«Eliz saihetsean etxe handi bat dago, dotoreziaz eraikitakoa, indoanoarena, burdinazko kantzelaz inguraturik.»
.....	
saihets	«Eliz saihets etxe handi bat dago...»
.....	
ostots	«Ekaizpean, ostotsez inguraturik, Norteko haize hotz eta aspreak eraso egi-ten zidalarik...»
.....	
izeki	«Ehiztarien sena gainditu zitzaizen, izeki beraien baitan otsoari ihizi aurrean pizten zaion errabia odoltsua.»
.....	